

2017ko urria

UROLA KOSTAKO MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANA

Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey
poligonoetako mugikortasunaren
azterketa eta ekintza-plana



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA



biziker
Consultoria en Movilidad
Mugikortasun Aholkularitza

UROLA KOSTAKO MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANA

*Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoetako
mugikortasunaren azterketa eta ekintza-plana*

Jarraipen Batzordea

Igor Iturain
Aintzane Ruesgas
Eli Uzkudun

Biziker Mugikortasun Aholkularitzako lan-taldea

José Francisco Cid
Ander Irazusta

LABURPEN EXEKUTIBOA

Urola Kostako Udal Elkarteak mugikortasun baldintzak eta irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin, 2017ko otsailetik irailera UROLA KOSTAKO MUGIKORTASUNERAKO egitasmoa jarri du abian, betiere iraunkortasunaren ikuspegitik. Proiektuari hasiera emateko, Zumaian kokatutako industrialdeetan esperientzia pilotua jarri da abian, izan ere, ekimena bertako enpresek Udal Elkarteari adierazitako kezka eta eskaeretatik abiatu baita.

Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoetako Mugikortasun Jasangarrirako Plan honek **joan-eterriak arrazionalizatzeko neurri sorta bat proposatzen du, desplazamendu hauek seguruagoak, eraginkorragoak eta jasangarriagoak izan daitezten.** Plana Urola Kostako Udal Elkarteak bultzatutako lan-lerro batean txertatzen da, mugikortasuna hobetzeko hainbat proiektu garatzeko xedea duen lan-lerroan, hain zuzen ere.



Iturria: www.urolakosta.eus

Azterketa eremua

INDUSTRIALDEA	ENPRESA KOPURUA	LANGILE KOPURUA	LANGILEEN %
J.M. KORTA	29	508	% 62
GUASCOR	2	155	% 19
XEY	5	160	% 19
GUZTIRA	36	823	% 100

Iturria: Urola Kostako Udal Elkarteak

Enpresa guztiei mugikortasun planean parte hartzeko gonbidapena egin zitzaion. Horietatik 23 enpresek era aktiboan parte hartu zuten, hau da, enpresa guztien %65. Parte hartu duten enpresetan 652 langile ari dira lanean, industrialde horietako langile guztien %79.

Planaren helburuak

Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoetako Mugikortasun Jasangarrirako plan honekin lau helburu nagusi hauek lortu nahi dira:

1. PARTAIDETZA: Gobernantza eredu berriak implementatzea. Lan egiteko modu berrien implementazioa, beste eremuetara eraman daitezkeenak.

2. INGURUMENA: mugikortasun ez jasangarriak eragindako inpaktuak murriztea.
3. SOZIALA: enpresetako langileen eta lan bila dabiltzan pertsonen ongizatea bermatzea.
4. EKONOMIKOA: Enpresen eta eskualdeko industrialdeetako lehiakortasuna sustatzea.

Planaren onurak eta abantaila nagusiak

Enpresarentzat	Langilearentzat	Eskualdearentzat
- Langileen estresa gutxitzea	- Auto pilaketek sortutako antsietatea desagertzea	- Auto pilaketa eta trafikoa gutxitzea
- Langileen desplazamendudenborak murriztea	- Mugikortasunerako beste joera osasuntsuagoak hartzea	- Energia kontsumoa gutxitzea
- Puntueltasuna handitzea	- Diru-aurreztea desplazamenduetan	- Kutsadura gutxitzea
- Enpresaren irudia hobetzea	- Zenbait kasutan denbora aurreztea	- Espazio publikoa handitzea
- Aparkalekuari eskainitako espazioa gutxitzea	- In itinere istripuak gutxitzea	- Azpiegitura-gastua aurreztea
- Langile eta lan-hautagaien irisgarritasuna hobetzea		- Lan merkaturako irisgarritasuna sustatzea
		- Bizi kalitatea hobetzea

Proiektuaren jomuga

Proiektu honen bidez, Urola Kostan mugikortasun jasangarrirako estrategiak sustatuko badira ere, proiektu honen praktikotasuna bermatze aldera, eskualdeko industrialde batzuk hartu dira proiektu pilotu gisa (Zumaiako Joxe Mari Korta, Xey eta Guascor poligonoak). Esperientzia pilotu honetan ikasitakoa eskualdeko gainontzeko industrialdeetara zabaltzea da asmoa.

Erabilitako metodologia

Egitasmo hau garatzeko, lanketa ondorengo hiru faseetan banatu da:

1. EREMU INDUSTRIALAREN EZAUGARRI ESPAZIAL ETA URBANISTIKOAK

Atal honetan, eskualdeko poligonoen azpiegituren plangintza eta ezaugarriak aztertu dira, ekintza-planean proposatutako lan-lerroek egungo planeamendu eta legediarekin bat etortzeko helburuarekin. Horretako, ondorengo alderdiak kontuan hartu dira:

- Hiri planeamendua eta mugikortasuna: *Hiri Planeamenduak (2004ko Arau Subsidiarioen errebisioa), 22/1988ko Kostetako Legea, 2000 Natura Sarea*
- Mugikortasunerako azpiegituren eskaintza: *1997 - 2017 Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura, IMD-aren eboluzioa GI-3760 errepidean, Udalplan eta Geoeuskadi, 2016*
- Garraio publikoaren eskaintza: trena eta autobusa: *UK7. Zumaiak Aizarnazabal Zestoa, UK3. Azkoitia Aizarnazabal Zarautz, Eusko Trenen Bilbo-Donostia linea*
- Ibilgailuentzako aparkaleku eskaintza: *1.110 aparkaleku, 823 langileentzako*

2. MUGIKORTASUNAREKIN LOTURA DUTEN ENPRESEN EZAUGARRIAK

Jarraian Mugikortasun Plana enpresen beharretara egokitzeko helburuarekin, enpresen profila aztertu da, ondorengo ezaugarri nagusiak kontuan izanik:

- Langile kopurua
- Jantokiak
- Enpresaren autobus zerbitzua
- Lan ordutegiak
- Norberaren ibilgailu kopurua

Horrez gain, mugikortasun azpiegituren azterketa egin da:



Joxe Mari Korta poligonoaren sarrera,
2017/05/19



Oikiako autobus geltokitik Xey poligonorako irisbidea

3. POLIGONOETAKO LANGILEEN MUGIKORTASUN OHITURAK

Azterketa hau egiteko mugikortasun ohiturei buruzko inkesta bat erabili da, aztergai diren hiru poligonoetako langileei zuzendutakoa. Galdetegi mixtoa erabili da, galdera itxi eta irekiekin, on line plataforma batean (*Google Forms*) jarri dena.


Datu bilketa 2017ko martxoa eta apirila artean egin da. Aurretik proiektuaren hedatze orokorra egin zen, udal eta eskualde mailako komunikabideetan eta mailing kanpaina bidez. Egitasmo honen informazioa eta galdetegia eskura dago Udal Elkartearen webgunean [\[+\]](#).

Enpresetan okupatuta dauden eta azterketan parte hartu duten 653 pertsonetatik 235 galdetegi bildu dira, hau da, enpresetan lan egiten duten langileen %36ak bete du.

Galdetegiaren emaitzak

Galdetegiak helburu bikoitza zuen: alde batetik, aztertutako poligonoetako langileen profila identifikatzea eta, bestetik, mugikortasun jasangarrirako aukerekiko aurretiko jarrera identifikatzea.

1. AZTERTUTAKO POLIGONOETAKO LANGILEEN ETA LANPOSTUEN PROFILA



Langileen profila

- **Genero ikuspegia:** Emakume langile bakoitzeko 3 gizonezko daude
- **Adina:** 35-44 urte bitartekoa
- **Jatorria:** Langileen %70,2 Urola Kostako Udal Elkarteko udalerriren batean bizi da

Lanpostuaren profila

- **Lanpostu mota:** %65 produkzio lanetan aritzen da
- **Lanaldia:** jarraitua (%56,4) eta lanaldi etena (%43,6)
- **Txandakako lana:** Enpresen %59,6k txanda bakarra du

Mugikortasun ohiturak

- **Distantzia:** %37k etxetik lanera 5Km baino gutxiago egin behar du
- **Maiztasuna:** %82k egunero 2 bidaia egiten ditu
- **Iraupena:** egindako bidaien batez bestekoa 15 minutukoa da

2. MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO AURRETIKO JARRERA

	<p>- Langileen %70 ez litzateke inola ere lanera oinez joango, ondorengo arrazoiengatik:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Kotxeen abiadura handia 2. Argiztapen falta 3. Espaloirik ez dago 4. Pizgarririk ez dago
	<p>- Langileen %59 ez litzateke inola ere lanera bizikletaz joango, ondorengo arrazoiengatik:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Bidegorrien azpiegitararik ez dago 2. Bizikleta aparkalekurik ez dago 3. Argiztapen falta 4. Pizgarririk ez dago
	<p>- Langileen %55 inguru prest legoke garraio publikoa erabiltzeko, baldin eta:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Inter modalitatea koordinatuta egongo balitz (trena eta autobusa) 2. Lan ordutegiarekin egoki etorriko balitz 3. Ibilbide segurtasuna hobetuko balitz
	<p>- Autoz mugitu ohi diren langileen %75 prest legoke autoa beste pertsona batzuekin partekatzeko. Horretarako, ondorengoak kontuan hartu beharko lirateke:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. %42,6aren kasuan, ordutegi bereko jendea topatzeko laguntza 2. %20,8aren kasuan, ohiz kanpoko egoeretan (bidai-lagunak huts egingo balu edo lanaldia luzatu beharko balute), irtenbidea aurkitzeko laguntza

Ekintza planaren testuingurua

Egindako diagnostikoa eta proiektuaren helburua kontuan hartuta, ondorengo irizpideak hartu dira kontuan ekintza-plana lantzeko:

1. Arrazionaltasun ekonomikoko irizpideak txertatu eta ekonomia zirkularrerako trantsizioa erraztu, sektore eta talde ezberdinen elkarlanerako trebeziak garatuz.
2. Aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa sustatu eguneroko mugikortasunean, mugikortasun sustengarria eta segurua bultzatuz.
3. Pertsonen laneko garraioaren kostu ekonomikoak murriztu.
4. Lan mugikortasunarekin lotutako trafikoko istripu-arriskuak murriztu.
5. Autoaren erabilera orokorretik eratorritako estres, neke eta ariketa fisiko ezarekin lotutako osasun arriskuak murriztu.
6. Gaur egungo mugikortasun eredutik eratorritako ingurumen eragin eta emisio kutsakorrek murriztu.
7. "Low Carbon" ereduan oinarritutako garraio sistema bultzatu, pertsonen mugikortasuna bermatuz eta negutegi efektuko gasak murriztuz.
8. Poligonoak eta enpresak eraginkortasunean, aurrezte energetikoan, bide segurtasunean, osasunean eta sustengarritasunean oinarritutako mugikortasunaren kudeaketa eredugarrian kokatu, aldi berean, kudeaketa eredu hau berrikuntzarako eta enplegu sorrerarako motor gisa erabiliz.
9. Enpresen ibilgailu floten kudeaketan irizpide berritzaile, sustengarri eta eraginkorrak implementatu.
10. Mugikortasun elektrikoaren eta energia berriztagarrien aukerak zabaldu.
11. Autoaren erabilera indibidualetik garraio publiko edota kolektibora, auto partekatura eta mugikortasun ez motorizatu eta aktibora aldatuta modala sustatu.

Akzio planaren lan lerro nagusiak

Planteatutako helburuak lortzeko jarduera lerro batzuk zehaztu dira. Hauetako lerro bakoitza neurri desberdin edo ekintza zehatzen bidez garatuko da. Ekintza proposamen hauen baturak osatzen du Ekintza Plana.

L.1. Mugikortasuna Gizarte Ardura Korporatiboan txertatu (GAK)

1.1. Mugikortasun jasangarria enpresaren Gizarte Ardura Korporatiboan txertatu

L.2. Garraio kolektiboaren erabileraren sustapena

2.1. Lurraldebuseko UK 07 linea egokitu, Zumaia Eusko Treneko geltokia J.M. Korta poligonoarekin lotu eta Guascor eta Xey poligonoetako irisgarritasuna hobetzeko.

2.2. Lurraldebuseko UK 03 linea egokitzeko aukerak aztertu.

2.3. Garraio publikoaren erabileraren sustapena.

2.4. Enpresen artean kudeatutako autobus zerbitzu partekatua sustatu.

L.3. Autoaren erabilera arrazional eta eraginkorra sustatu

3.1. Autoaren erabilera eraginkorrari buruzko ikastaroak.

3.2. Autoa partekatzeke aplikazio baten diseinua. Smart Mobility.

3.3. Autoa partekatzeke sustapen kanpaina. Car pooling.

3.4. Enpresen ibilgailuen floten kudeaketa sustengarriaren sustapena.

L.4. Mugikortasun aktiboa sustatu

4.1. Zumaia eta Joxe Mari Korta poligonoaren arteko oinezko eta bizikleta bidezko lotura egiteko bideragarritasuna aztertu.

4.2. Oikia, Guascor eta Xey poligonoekin oinez lotzeko azterketa.

4.3. Mugikortasun aktiboaren sustapen kanpaina, osasunaren ikuspuntutik abiatuta.

4.4. Bizikletentzako aparkaleku babestuen instalazioa.

4.5. Bizikleta elektrikoaren erabileraren sustapen kanpaina.

L.5. Trafikoko lan-istripuekin lotutako arriskuen prebentzioa

5.1. Trafikoko lan-istripuen prebentzioa.

L.6. Langileen joan-etorriak gutxitzea

6.1. Tele-lanaren sustapena.

6.2. Lanaldi etenetik lanaldi jarraiturako aldaketa erraztu.

L.7. Langileen ordutegien kontzentrazioa

7.1. Ordutegien kontzentrazioaren azterketa, auto partekatu eta garraio kolektiboaren erabilera bultzatzeko.

ERANSKINA:
EKINTZA-PLANAREN LAN LERROEN DESKRIBAPENA

Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 1 | Jarduera lerroa L1 | Nomenklatura 1.1.

Mugikortasuna Gizarte Ardura Korporatiboan txertatu (GAK)

Ekintzaren izenburua

MUGIKORTASUN JASANGARRIA ENPRESAREN GIZARTE ARDURA KORPORATIBOAN TXERTATU (GAK)

Helburuak

Poligonoak eta enpresak eraginkortasunean, aurrezte energetikoan, bide segurtasunean, osasunean eta sustengarritasunean oinarritutako mugikortasunaren kudeaketa eredugarrian kokatu, aldi berean, kudeaketa eredu hau berrikuntzarako eta enplegu sorrerarako motor gisa erabiliz.

Irizpide, aukerak eta oztupoak

Enpresek aktiboki lagundu behar dute gertuko ingurumenaren eta enpresa bertako lan ingurunea hobetzen, enpresa filosofia aldaketa bat sustatuz eta, neurri zehatzekin, mugikortasun jasangarriago bat sustatuz. Zentzu horretan enpresako kideei eta gizarteari helarazi behar zaie mugikortasuna funtsezko elementu bat dela enpresarentzat.

Plangintza honetan proposatutako neurri orokorren kudeaketa partekatuz haratago joanda, enpresak hartuko dituen neurrien helburuak, kudeaketa eta jarraipena enpresako kideen artean adostu behar dira, horien garapenerako barne konpromisoa hartuz.

Deskribapena

Mugikortasun jasangarriarekin lotutako eta giza eta ingurumen ondorioak dituzten jarduerak proposatu eta garatzen diren neurrian, hauek Gizarte Ardura Korporatiboaren memorietan txertatu. Aldi berean, langileen artean zabaldu enpresaren mugikortasunean eragina duten neurriei eta norbanakoentzat eta kolektiboarentzat dituzten ondorio positiboak buruzko informazioa (autoaren erabileraren kostua, aukera alternatiboak...). Komenigarria da mugikortasunari buruzko gaietarako pertsona koordinatzaile bat izendatzea.

Aldizkakotasuna: Urtean behin | Kostu zenbatetsia: Hartutako neurrien arabera

Eragile arduradunak: Enpresa eta administrazioa (aholkularitza emanaz).

Espero diren onurak

Enpresako kideen eta gizartearen kontzientziazioa.

Langileen inplikazioa proposatutako ekintzetan.
Enpresaren irudia hobetzea.

Emaitzen adierazleak

Hartutako eta GKA memorian jasotako neurri kopurua.
Hartutako neurrietan parte hartutako langile kopurua.

Adibideak

Hainbat enpresa dira mugikortasuna haien GKAn sartu dutenak, enpresaren Sustengarritasun Planaren barruan. Adibide ezaguna da “Grupo de Leche Pascual” enpresarena. Bere helburu eta jarduera lerroetako batzuk honakoak dira:

- CO2 eta kutsadura akustikoaren murrizketa.
- Langileen arteko auto partekatua (>%50)
- Familia bizitza eta lan bizitzaren arteko kontziliazioa.
- Joan-etorrien eta laneko trafiko istripuen murrizketa.

Beste adibide bat “Liberty Seguros” enpresarena da, 2016. urtean GKA-rekiko konpromisoaren barne mugikortasun ez motorizatua sustatzeko ekimen bat burutu zuen. Ekimenaren oinarria zen lanera bizikletaz joategatik ordaintzea. Urte bete geroago langileen %5 bizikletaz joaten da lanera.



Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 2

Jarduera Ierroa L2

Nomenklatura 2.1.

Garraio kolektiboaren erabileraren sustapena

Ekintzaren izenburua

LURRALDEBUSEKO UK 07 LINEA EGOKITU, ZUMAIAKO EUSKO TRENEKO GELTOKIA J.M. KORTA POLIGONOAREKIN LOTU ETA GUASCOR ETA XEY POLIGONOETAKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO.

Helburuak

Lan mugikortasunarekin lotutako trafikoko istripu-arriskuak murriztea.

Autoaren erabilera orokorretik eratorritako estres, neke eta ariketa fisiko ezarekin lotutako osasun arriskuak murriztea.

Autoaren erabilera indibidualetik garraio publiko edota kolektibora, auto partekatura eta mugikortasun ez motorizatu eta aktibora aldaketa modala sustatzea.

Irizpide, aukerak eta oztupoak

Gaur egungo ibilbidean UK07 linea GI-3760 errepidetik igarotzen da, baina ez dauka Joxe Mari Korta poligonoan geltokirik. Beharrezkoa da poligono honetan gutxienez geltoki bat sortzea. Kokatzen den partzelaren luzera kontuan hartuta, 1.000 metrotik gorako distantziekin, geltoki bat baino gehiago sortzeko aukera aztertu beharko litzateke.

Oikian geltokia Guascor eta Xey poligonotik ez gehiegizko distantzia batera kokatzen da, baina geltokitik poligonoetara iristeko oinezko bidea falta da. Dena den, eskaerapeko geltokien sorrera aztertu beharko litzateke.

UK07 lineak zerbitzua minibus baten bidez eskaintzen du. Eskaera eta erabileraren hazkuntzak ibilgailu aldaketa baten beharra ekar dezake.

Ezinbestekoa da goizeko lehen zerbitzuak enpresetako sarrera ordutegiarekin koordinatzea. Gaur egun, lehen zerbitzua Joxe Mari Korta poligonora 7:30ak baino beranduago iritsiko litzateke.

Era berean, beharrezkoa litzateke Zumaiako Eusko Treneko geltokiko autobusaren irteerak Donostia-Zarautz trenaren iritsiera ordukin koordinatzea, erabiltzaile gehien izan ditzakeen korrespondentzia (horrela trena + autobusa inter modalitatea ahalbidetuz).

Deskribapena

Lurraldebuseko UK07 linearen ibilbidea aldatu, Zumaiako Eusko Treneko geltokia J.M. Korta poligonoarekin eta Guascor eta Xey poligonoen inguruarekin lotzeko. Geltoki berri bat sortu Joxe Mari Korta poligonoan. Tren geltokitik autobusaren irteera orduak, tren zerbitzuen ordutegiak eta poligonoetara iritsiera orduak koordinatu lanaldien hasiera ordutegiak.

Aldizkakotasuna: iraunkorra

Kostu zenbatetsia: zehazteke

Eragile arduradunak

Gipuzkoako Foru Aldundia, Lurraldebus, Gipuzkoako Garraio Agintaritzza, Zumaiako Udala, Urola Kostako Udal Elkarte

Espero diren onurak

Garraio publikoaren erabilera %5 igotzea.

Emaitzen adierazleak

Banaketa modalean garraio publikoak duen pisua (%)



Joxe Mari Korta poligonoan autobus geltokiak jartzeko balizko kokapenak

Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 3

Jarduera lerroa L2

Nomenklatura 2.2.

Garraio kolektiboaren erabilera sustatzea

Ekintzaren izenburua

LURRALDEBUSEKO UK 03 LINEA EGOKITZEKO AUKERAK AZTERTU (ZARAUTZ-OIKIA BIDEGURUTZEA-AZKOITIA) GUASCOR ETA XEY POLIGONOETARAKO GARRAIO PUBLIKO BIDEZKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO

Helburuak

Lan mugikortasunarekin lotutako trafikoko istripu-arriskuak murriztea.

Autoaren erabilera orokorretik eratorritako estres, neke eta ariketa fisiko ezarekin lotutako osasun arriskuak murriztea.

Autoaren erabilera indibidualetik garraio publiko edota kolektibora, auto partekatura eta mugikortasun ez motorizatu eta aktibora aldaketa modala sustatzea.

Irizpide, aukerak eta oztupoak

Linea honek eskaintzen duen zerbitzua, aldaketa batzuekin, interesgarria izan daiteke Xey eta Guascor poligonoetara Zarautzik doazen langileentzat (ez hainbeste, distantziengatik, Joxe Mari Kortara doazenentzat). Dena den, egungo Oikiako bidegurutzeko geltokitik (GI-3760 eta GI2633 elkartzen diren puntuan) Guascor eta Xey poligonoetarako distantziak, 1000 eta 900 metro hurrenez hurren, handiegiak dira eta, beraz, eskaerapeko geltokiak ezarri beharko lirateke.

Linearen hasieran, Zarauzko tren geltokitik gertuen dagoen autobus geltokia 350 metrora kokatzen da. Abiapuntua Zarautzen duten zerbitzu berriak behar dira, turnotan lan egiten duten langileen ordutegietara egokitzen direnak.

Deskribapena

UK03 linearen ordutegien egokitzapena poligonoetako enpresetako lanaldietara moldatzeko. Eskaerapeko geltokiak sortzeko aukerak aztertu.

Aldizkakotasuna: Iraunkorra
 Kostu zenbatetsia: Zehazteke

Eragile arduradunak

Gipuzkoako Foru Aldundia, Lurraldebus, Gipuzkoako Garraio Agintaritzza, Zumaiako Udala, Urola Kostako Udal Elkartea.

Espero diren onurak

Garraio publikoaren erabilera %5 igotzea.

Emaitzen adierazleak

Banaketa modalean garraio publikoak duen pisua (%)

Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 4

Jarduera lerroa L2

Nomenklatura 2.3.

Garraio kolektiboaren erabileraren sustapena

Ekintzaren izenburua

GARRAIO PUBLIKOAREN ERABILERAREN SUSTAPENA

Helburuak

Lan mugikortasunarekin lotutako trafikoko istripu-arriskuak murriztea.

Autoaren erabilera orokorretik eratorritako estres, neke eta ariketa fisiko ezarekin lotutako osasun arriskuak murriztea.

Autoaren erabilera indibidualetik garraio publiko edota kolektibora, auto partekatura eta mugikortasun ez motorizatu eta aktibora aldaketa modala sustatzea.

Irizpide, aukerak eta oztupoak

Gaur egun garraio publikoaren erabilerak oso pisu txikia du banaketa modalean. Dena den, erabiltzeko jarrera positiboa eta gogo maila esanguratsua aurkitu dugu langileen artean, batik bat trena eta autobusaren arteko konbinazioan (inter modalitatea).

Eremuan lan egiten duten pertsonen proportzio esanguratsu bat Zumaia edo Zarautzen bizi da, Oikiarekin Lurraldebusen lineen bidez lotura duten udalerrietan.

Ekintza hau 2. edota 3. ekintzekin modu koordinatuan jarri behar da martxan.

Deskribapena

Poligonoekin lotura (izango) duten Lurraldebusen eta Eusko Trenen garraio zerbitzuen informazio eta sustapen kanpaina garatu. Neurriaren giza eta ingurumen abantailak ikusarazi.

Informazio triptiko bat editatu. Enpresetan kartelak.

Kartelak MUpletan ("Mueble Urbano para la Presentación de Información"), Zumaia tren geltokian, etab.

Difusio kanpaina prentsan, irratian, sare sozialetan.

Aldizkakotasuna urtean bitan

Kostu zenbatetsia 6.000€ -tik aurrera

Inplikaturako eragileak: Urola Kosta Udal Elkarte, Gipuzkoako Garraio Agintaritz, Udal inplikatutak

Espero diren onurak

Biztanleria eta langileak kontzientziaztea, jada aipatutako helburua lortze aldera: Garraio publikoaren erabilera %5 igotzea.

Emaitzen adierazleak

Banaketa modalean garraio publikoak duen pisua (%).

Adibideak

NitBus, lanetik etxera. Poligonoetarako autobus zerbitzua eta sustapen kanpaina. Baix Bus (Bartzelona).



<http://www.baixbus.cat/es/comunicacion/campanas-de-promocion>

Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 5

Jarduera lerroa 2

Nomenklatura 2.4.

Garraio kolektiboaren erabileraren sustapena

Ekintzaren izenburua

ENPRESEN ARTEAN KUDEATUTAKO AUTOBUS ZERBITZU PARTEKATUA SUSTATU

Helburuak

Lan mugikortasunarekin lotutako trafikoko istripu-arriskuak murriztea.

Autoaren erabilera orokorretik eratorritako estres, neke eta ariketa fisiko ezarekin lotutako osasun arriskuak murriztea.

Autoaren erabilera indibidualetik garraio publiko edota kolektibora, auto partekatuta eta mugikortasun ez motorizatu eta aktibora aldaketa modala sustatzea.

Irizpide, aukera eta oztopoak

Enpresek partekatutako bi autobus zerbitzu mota existitzen dira: anezka (“lanzadera”) zerbitzua, eta jatorritik abiatutako autobus ibilbidea. Gaur egun, aztertutako eremuan 3 enpresa daude bigarren zerbitzu mota (autobus ibilbidea) modu indibidualean eskaintzen dutenak (ikus dokumentu honen 2.4. puntua).

Ekintza honetako bi modalitateetako edozein garatzeko enpresen arteko lankidetzak estua behar da, eta, ahal den neurrian, administrazioaren laguntza (lankidetzak publiko-pribatua). Funtsezkoa da, gainera, parte hartu nahi luketen enpresen artean aurretiko eskaeraren azterketa bat egitea, zerbitzua modu egokian antolatu eta dimentsionatzeko.

Atal honetako gainontzeko ekintzetan ez bezala, zerbitzu hauek ez dira garraio publikoaren sistemaren barruan kokatzen, batik bat enpresek finantzatu eta kontratatutako dituztelako. Zerbitzu malguak izan behar dute, ordutegiaren eta ibilbidearen balizko egokitzapenei irerkiak, behin abiatuta ekimenera gehitu nahiko luketen enpresen eskaeraren arabera.

Honako paradoxa gerta daiteke: 2. eta 3. ekintzetan proposatutako eskualdeko garraio publikoaren lineen egokitzapenak zerbitzu honen garapena oztopatzea. Horregatik, funtsezkoa da garraio kolektiborako bitartekoak garatu baino lehen, neurrien lehentasunei buruzko azterketa bat egitea.

Deskribapena

1. Modalitatea ANEZKA (“LANZADERA”) AUTOBUSA: poligonoetako langileentzako autobus ibilbidea ezarri; zerbitzua emango duena laneko sarrera eta irteera orduetan; Zumaiako Eusko Treneko geltokia enpresekin lotuko duena, tarteko geltokirik gabeko ibilbide zuzenarekin. Trena+autobusa inter modalitatean oinarritzen da.

2. Modalitatea ENPRESETAKO AUTOBUS IBILBIDEAK: Zerbitzu hau eskaintzen duten enpresen konbenioak errespetatzeko baldintzapean, eta langileentzat gaur egun suposatzen dituen

abantailak mantenduz, autobusa duten enpresen arteko akordioak sustatu, interesa izan dezaketen beste enpresak gehitzeko ahalegina egin.

Aldizkakotasuna	Kostu zenbatetsia
Iraunkorra, egokitzapenekin	40.000 € urtero autobuseko (55 plazarako, bi espedizioekin puntako orduan eta eguneko 60 Km-ko ibilbidearekin).

Eragile arduradunak

Enpresak, Zumaiaiko Udala, Urola Kostako Udal Elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundia

Espero diren onurak

Puntueltasuna areagotzea ordutegietan (sarrera zein irteeran); hori enpresarentzat zein langileentzat onuragarria da. Posible da anezka autobusaren irteera ordua Zumaiaiko Eusko Treneko trenen edota autobusen iritsiera orduekin bat egitea, itzarote denbora murrizteko.

Langile askoren kasuan, joan-etorrien denborak nabarmen murriztea.

Garraioaren kostuak murriztea.

Parte hartuko duten enpresek zerbitzu bat gehiago eskainiko diote langileari, oso baloratua den zerbitzua, ez baitute kezkarik izango enpresara iristeko moduaren eta lanera sartzeko puntueltasunaren inguruan.

Emaitzen adierazleak

Banaketa modalean garraio publikoak duen pisua (%).

Adibideak:

ANEZKA AUTOBUSA Can Sant Joan-en, Bartzelonako ekimen arrakastatsua

<http://www.interempresas.net/Naves/Articulos/103734-El-transporte-publico-al-poligono-de-Can-Sant-Joan-una-experiencia-exitosa.html>



Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 6

Jarduera lerroa L3

Nomenklatura 3.1.

Autoaren erabilera arrazional eta eraginkorra sustatu

Ekintzaren izenburua

AUTOAREN ERABILERA ERAGINKORRARI BURUZKO IKASTAROAK

Helburuak

Aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa sustatzea eguneroko mugikortasunean, mugikortasun sustengarria eta segurua bultzatuz.

Gaur egungo mugikortasun eredutik eratorritako ingurumen eragin eta emisio kutsakorrek murriztea.

Irizpide, aukerak eta oztupoak

Aztertutako poligonoetan autoa da garraio modu nagusia eta, beraz, funtsezkoa da bere erabileran ahalik eta eraginkortasun maila handiena lortzea (hori lortzeko neurri eraginkorrenak autoaren erabilera partekatua sustatze aldera zuzendutako neurriak dira, 3.2. eta 3.3. ekintzetan azaltzen direnak).

Ekintza honen oinarria da autoa modu eraginkorrean gidatzea. Aldaketa honekin erregai kontsumoa %15 murriztea lor daiteke, gidatze modu "arruntarekin" alderatuta.

Ikastaroari eta honen helburuei buruzko komunikazio kanpaina bat egitea beharrezkoa da, udal eta eskualde mailako komunikabide eta webguneetan.

Deskribapena

Urtero gutxienez gidatze eraginkorrari buruzko ikastaro bat burutzea, normalean lanpostura autoz joaten diren langileentzat. Ikastaroari eta honen helburuei buruzko komunikazio kanpaina egingo litzateke udal eta eskualde mailako komunikabide eta webguneetan.

Aldizkakotasuna: urtean behin

Kostu zenbatetsia 500€/ikastaroko

Eragile arduradunak: Enpresak, EVE ("Energiaren Euskal Erakundea", Urola Kostako Udal Elkarteak).

Espero diren onurak

Erregaiari dagokion aurrezte ekonomikoa.
 Autoaren mantenimendu kostuak murriztea.
 Energia aurrezte.

Isurpen kutsakorrek murriztea, horien artean BEG (Berotegi Efektuko Gasak).

Emaitzen adierazleak

Urtero ikastaroa egiten duen pertsonen kopurua.
Ikastaroetan parte hartu duen pertsonen portzentajea poligonoetan lan egiten duten langile guztiekiko.

Adibideak

EVEk (“Energiaren Euskal Erakundea”) EAEn kokatutako enpresa, instituzio eta eragileei gidatze eraginkorrerako ikastaroak eskaintzen dizkie. Enpresan bertan ematen dira.

Informazio gehiago:

<http://www.eve.eus/Proyectos-energeticos/Proyectos/Transporte-alternativo/Cursos-de-conduccion.aspx?lang=en-GB>



Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 7

Jarduera Ierroa L3

Nomenklatura 3.2.

Autoaren erabilera arrazional eta eraginkorra sustatu

Ekintzaren izenburua

AUTOA PARTEKATZEKO APLIKAZIO INFORMATIKO BATEN DISEINUA EDO EGOKITZAPENA. SMART MOBILITY

Helburuak

Aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa sustatzea eguneroko mugikortasunean, mugikortasun sustengarria eta segurua bultzatuz.

Gaur egungo mugikortasun eredutik eratorritako ingurumen eragin eta emisio kutsakorrek murriztea.

Irizpide, aukerak eta oztipoak

Aztertutako poligonoetan bada autoa partekatzeko nolabaiteko kultura, izan ere, auto partekatua erabilerak eguneroko mugikortasunaren %8 suposatzen baitu. Funtsezkoa da abiapuntu hau baliatzea.

Deskribapena

Egunero Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoetara doazen pertsonak kontaktuan jarriko dituen webgune bat garatu, etxetik lanerako (eta lanetik etxerako) bidea partekatzeko helburuarekin. Beste aukera bat da dagoeneko existitzen den plataformaren bat aprobeztatzea, aipatutako poligonoen behar eta ezaugarrietara egokituz.

Smartphonentzako App edo aplikazio baten garapena.

Aldizkakotasuna Puntuala

Kostu zenbatetsia 10.000 € – 18.000 €

Inplikaturako eragileak: Urola Kostako Udal Elkarteak

Espero diren onurak:


BEGen eta beste gas kutsakorren isurketak murriztea.
 Auto partekatua erabilera %5 igotzea urtero.

Emaitzen adierazleak

Banaketa modalean auto partekatuak duen pisua (%)

Adibideak: *compartir.org* plataformapean egokitutako aplikazioak

- Irun



<http://irun.compartir.org/bidaiak/treballar/>

- Move Euskadi



<http://moveuskadi.compartir.org/>

- **Positive Drive.** App hau autoa partekatzeko diseinatuta dago, baita moduen arteko konbinaketa sustatu eta kudeatzeko ere (oinez, bizikletaz).



<http://www.positivedriveapp.com/about-the-app/>

- **Proiektu europarrei buruzko informazio gehiago CIVITAS EU-n.**

<http://civitas.eu/car-independent/car-pooling>

Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 8

Jarduera Ierroa L3

Nomenklatura 3.3.

Autoaren erabilera arrazional eta eraginkorra sustatu

Ekintzaren izenburua

AUTOA PARTEKATZEKO SUSTAPEN KANPAINA. CAR POOLING

Helburuak

Aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa sustatzea eguneroko mugikortasunean, mugikortasun sustengarria eta segurua bultzatuz.

Gaur egungo mugikortasun eredutik eratorritako ingurumen eragin eta emisio kutsakorrek murriztea.

Irizpide, aukerak eta oztupoak

Autoaren erabilera arduratsua, "Responsible Car Use" kontzeptua barneratu.

Dagoeneko Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoetan funtzionatzen duten esperientziak ikusarazi: auto partekatua erabilerak eguneroko mugikortasunaren %8 baino gehiago suposatzen du.

Auto partekatua erabiltzeko Europako esperientziak aprobetxatu.

Deskribapena

Komunikazio kanpaina bat burutu, lanera mugitzeko autoa partekatzeak dakartzan giza, ekonomia zein ingurumen abantailak ikusarazteko. Udal eta eskualde mailako komunikabide eta webguneetan egin daiteke, baliabide gisa dagoeneko autoa partekatzen duten pertsonen testigantza erabiliz. Triptikoak eta kartelak ere erabil daitezke.

Aldizkakotasuna: urtean behin

Kostu zenbatetsia 3.000 €

Eragile arduradunak Enpresak, Urola Kostako Udal Elkarteak

Espero diren onurak

BEGen eta beste gas kutsakorren isurketak murriztea.
 Auto partekatua erabilerak %5 gutxiago urtero.

Emaitzen adierazleak

Banaketa modalean auto partekatua duen pisua (%)

Adibideak

Car pooling-Auto partekatua ren kanpaina PlaZa-n (Plataforma logística Zaragoza)





Las acciones de la campaña **Presentaciones, contacto con actores, folletos, carteles, concurso fotográfico, información, Plan de Seguridad Vial del GA.**





Acción 1. Distribución de trípticos informativos en los centros de trabajo entregados en mano. 1.200 ejemplares

Acción 2. Colocación de carteles en tabloneros y lugares de convivencia. 500 ejemplares

Acción 3. Distribución de "flyers" en los parabrisas de los coches en los aparcamientos. 3500 ejemplares

Acción 4. PLAZA destina una valla publicitaria a la campaña y comunicación e-mail.

Acción 5. Concurso fotográfico "menos humos en Plaza".
menoshumosenplaza@ceam.net

Acción 6. Difusión en los medios propios del Departamento: web, boletines electrónicos.

Acción 7: Se incluye en el Plan de Seguridad Vial del GA.





UNIÓN EUROPEA
Fondo Europeo de Desarrollo Regional





GOBIERNO DE ARAGON

European Mobility week

<http://www.mobilityweek.eu/campaign-materials/>

Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 9

Jarduera lerroa 3

Nomenklatura 3.4.

Autoaren erabilera arrazional eta eraginkorra sustatu

Ekintzaren izenburua

ENPRESEN IBILGAILUEN FLOTEN KUDEAKETA SUSTENGARRIAREN SUSTAPENA

Helburuak

Enpresen ibilgailu-floten kudeaketan irizpide berritzaile, sustengarri eta eraginkorrak inplementatzea.

Gaur egungo mugikortasun eredutik eratorritako ingurumen eragin eta emisio kutsakorrek murriztea.

“Low Carbon” ereduan oinarritutako garraio sistema bultzatzea, pertsonen mugikortasuna bermatu eta negutegi efektuko gasak murriztuz.

Mugikortasun elektrikoaren eta energia berriztagarrien aukerak zabaltzea.

Irizpide, aukerak eta oztupoak

Aztertutako eremuan ez dago ibilgailu elektriko edo hibridorik duen enpresarik, hartara energetikoki eraginkorragoak diren ibilgailuetan oinarritutako mugikortasuna sustatzeko potentzial handia dago.

Jarraitzen diren sustengarritasunarekin lotutako helburuak lortzeko beharrezkoa da planifikazioa eta ekintzarako esparru bat finkatzea. “Green Fleet Policy” edo Flota Sustengarrirako Politika delakoak hausnarketa sakon bat eskatzen du flotaren ezaugarri eta erabileren inguruan, ondorengo faktoreak aztertzeko: batez besteko kontsumoa, batez besteko eguneroko kilometrajea, ibilbide motak (hiri barnekoak, distantzia luzekoak), ibilgailuak martxan dauden denbora, non gordetzen diren geldirik daudenean, kargatzeko ahalmenaren optimizazioa, etab.

Deskribapena

Flota Sustengarrirako Politika baten garapena. Politika honen puntuak izan daitezke:

1. Eraginkortasun handiagoa duten eta, aldi berean, isurketa gutxiagokoak diren ibilgailu berrien erosketa, ibilgailuaren bizitza ziklo osoa kalkulatzuz.
2. Flotaren tamainaren optimizazioa, azpierzaitutako ibilgailuak berrerabili edota baztertuz.
3. Lortzen ari den emisioen murrizketaren jarraipen zorrotz, erreal eta jarraitua burutzea.

Aldizkakotasuna:

Jarraitua, urtero ebaluaketa bat eginez

Kostu zenbatetsia:

Flotaren tamainaren eta enpresaren helburuen arabera, aldakorra.

Inplikaturako eragileak: Enpresak, IVL (*Instituto Vasco de Logística*), EVE (Energiaren Euskal Erakundea)

IVL-k eta mugikortasunaren arloko beste aholkularitza-etxe batzuek politika hauen lanketarako laguntza teknikoa eskaintzen dute.

EcoStars Cantabria programak *flota berdeen* ziurtagiriak kudeatzen ditu (duela 3 urte arte IVL-ak kudeatzen zuen desagertutako EcoStars Euskadi programaren bitartez)

<http://www.ecostars-cantabria.es/>

EVEk (Energiaren Euskal Erakundea) urtero diruz laguntzen du ibilgailu elektrikoek edota emisio baxuko ibilgailuen erosketari

Espero diren onurak

Enpresetako floten emisioen murrizketa

Emaitzen adierazleak

Emisio baxuko flotak eta Flota Sustengarrirako Politika duten enpresa kopurua
Ibilgailuak erosteko diru laguntza jasotako enpresak

Adibideak

Hainbat enpresa daude Flota Sustengarrirako Politikaren bat garatu dutenak, eta, aldi berean, flota berdeen zertifikaziorako EcoStars Euskadi programan parte hartu dutenak: Autobuses Vigiola, Txita Txirindak, Nanuk Transportes, etab.



Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 10

Jarduera lerroa 4

Nomenklatura 4.1.

Mugikortasun aktiboa sustatu

Ekintzaren izenburua:

ZUMAIA ETA JOXE MARI KORTA POLIGONOAREN ARTEKO OINEZKO ETA BIZIKLETA BIDEZKO LOTURA EGITEKO BIDERAGARRITASUNA AZTERTU

Helburuak:

Autoaren erabilera indibidualetik mugikortasun ez motorizatu eta aktibora aldaketa modala sustatzea.

Pertsonen lanerako garraioaren kostu ekonomikoak murriztea.

Gaur egungo mugikortasun eredutik eratorritako ingurumen eragin eta emisio kutsakorrak murriztea.

Irizpide, aukera eta oztopoak

Hiru poligonoetako langileen ia %30 Zumaian bizi da, 3 eta 5 Km arteko distantziara, hau da, eguneroko joan-etorriak egiteko bizikleta ez elektrikoaren erradio maximo idealaren barnean. Inkestatutako langileen %32k lanera bizikletaz joateko asmoa adierazi du, bizikletentzako azpiegitura segurua izatearen baldintzapean. Bestalde, langile guztien %30 prest legoke, baldintza batzuekin, lanera oinez joateko.

Zumaiako hirigunetik hasi eta Basusta poligonoa eta Urola ibaiaren erribera zeharkatuz bidegorri bat egiteko oztopo nagusia da eremu hori 2000 Natura Sareko Babes Bereziko Zonaldearen barruan dagoela eta horrek oztopatu egiten duela, neurri handi batean, edozein ekintza posible (ikus 2.6. atala).

Bestalde, pentsa daitekeen beste ibilbide alternatibo baterako oztopo nagusia aipatu behar da. Ibilbide hau bidegorritik abiatuko litzateke, N-634 eta GI-3760 errepideen parez pare, baina malda handiegiak gainditu beharko litzuzke Narrondo eta Urola ibaien ibarrak banatzen dituen gaina gainditzeko.

Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak elkartuko litzuzkeen bidegorria egiteko ez dago aparteko oztoporik.

Deskribapena:

Bideragarritasun eta alternatiben azterketa Zumaiako hirigunea eta Joxe Mari Korta poligonoa elkar lotuko litzuzkeen oinezkoentzako eta bizikletentzako bidea egiteko.

Aldizkakotasuna: puntuala

Kostu zenbatetsia: 18.000 € (bideragarritasun azterlana egiteko)

Eragile arduradunak:

Zumaiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila, URA "Uraren Euskal Agentzia"

Espero diren onurak:

Autoaren erabilera indibidualetik mugikortasun ez motorizatu eta aktiborako aldaketa modala.

Emaitzen adierazleak:

Oinez edo bizikletaz mugitzen diren pertsonen portzentajea

Adibideak:

Gaur egun Gipuzkoako Bizikleta Bideen Foru Sareak zerbitzua eskaintzen die herriguneetatik erlatiboki urrun dauden zenbait poligonori. Horrela, geroz eta langile gehiago mugitzen dira poligonoetako lanpostuetara bizikletaz. Zentzu horretan nabarmentzekoak dira Aretxabaleta-Eskoriatza, Asteasu-Zizurkil, Oñati-Arrasate eta Beasain-Ormaiztegi tartekak.



Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 11

Jarduera lerroa 4

Nomenklatura 4.2.

Mugikortasun aktiboa sustatu

Ekintzaren izenburua

OIKIA GUASCOR ETA XEY POLIGONOekin OINEZ LOTZEKO AZTERKETA

Helburuak:

Autoaren erabilera indibidualetik mugikortasun ez motorizatu eta aktibora aldaketa modala sustatzea.

Pertsonen lanerako garraioaren kostu ekonomikoak murriztea.

Gaur egungo mugikortasun eredutik eratorritako ingurumen eragin eta emisio kutsakorrek murriztea.

Irizpide, aukerak eta oztupoak

Inkestatutako Guascor eta Xey poligonoetako hainbat langile Oikiako herrigunean bizi dira (200 eta 400 metrora, hurrenez hurren), eta bakar bat ere ez da lantokira oinez joaten, izan ere, errepideak ez baitu ezta espaloi ezta bide-bazter erabilgaririk.

Deskribapena

Oikiako herrigunea Guascor eta Xey poligonoekin lotzeko proiektuaren idazketa.

Aldizkakotasuna: puntuala

Kostu zenbatetsia: 18.000 €

Eragile arduradunak: Zumaiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia



Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 12

Jarduera lerroa 4

Nomenklatura 4.3.

Mugikortasun aktiboa sustatu

Ekintzaren izenburua

MUGIKORTASUN AKTIBOAREN SUSTAPEN KANPAINA OSASUNAREN IKUSPUNTUTIK ABIATUTA

Helburuak:

Autoaren erabilera indibidualetik mugikortasun ez motorizatu eta aktibora aldaketa modala sustatzea.

Pertsonen lanerako garraioaren kostu ekonomikoak murriztea.

Gaur egungo mugikortasun eredutik eratorritako ingurumen eragin eta emisio kutsakorrek murriztea.

Irizpide, aukera eta oztopoak

Kanpainak batera erakutsi behar ditu oinez eta bizikletaz mugitzeak dakarren ariketa eta osasun fisiko eta mentala (memoria hobetzen da, estresa gutxitu, gizentasuna eta diabetea gutxitu, bizitza esperantza luzatu...).

Gaur egun Zumaiaetik poligonoetarako bidearen azken zatia oinez era seguru eta erakargarrian egiteko baldintzak egokiegia ez badira ere, funtsezkoa da mugikortasun aktiboa sustatzea, langileak egin dezakeen joan-etorriaren faseetan (bizilekutik geltokira, adibidez), nahiz lan jarduerarekin zerikusirik ez duten bestelako joan-etorrietan.

Deskribapena

Poligonoetara joateko azpiegitura ez motorizatu berrien sustapen kanpaina bat garatu, azpiegitura horien erabilera ohiko ariketa fisikoak (oinetz edo bizikletaz mugitzeak) dakartzan onurekin lotuz.

Aldizkakotasuna: urtean bitan

Kostu zenbatetsia: zehazteke

Eragile arduradunak: Zumaiaiko Udala, Osakidetza

Adibideak

Osakidetzaren kanpaina "OINEZ BIZI" https://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-ckmpn04/es/contenidos/informacion/onezbizi/es_oinetz/onezbizi.html



Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 13

Jarduera lerroa 4

Nomenklatura 4.4.

Mugikortasun aktiboa sustatu

Ekintzaren izenburua

BABESTUTAKO BIZIKLETEN APARKALEKUEN AZPIEGITURAK

Helburuak:

Autoaren erabilera indibidualetik mugikortasun ez motorizatu eta aktibora aldatzea modala sustatzea.

Pertsonen lanerako garraioaren kostu ekonomikoak murriztea.

Gaur egungo mugikortasun eredutik eratorritako ingurumen eragin eta emisio kutsakorrek murriztea.

Irizpide, aukerak eta oztupoak

Bizikletaren erabilera normalizatzeko ezinbesteko baldintza bat da bidaiaren jatorrian zein helburuan aparkatzeko toki eroso eta seguru bat izatea. Enpresetako bizikletentzako aparkalekuek izan beharko lituzketen ezaugarriak honakoak dira:

Gertutasuna eta ikusgaitasuna: garrantzitsua da aparkalekuak ageriko den eta gertu dagoen toki batean kokatzea.

Eguraldi eta lapurretetatik babesa: Euritik babesteko aterpe arrunt bat behar da. Segurtasuna eskaintzeko giltza edo txartel bidez sar daitekeen esparru itxi bat jar daiteke (dena den, nahikoa izan daiteke aparkalekua enpresa-partzelaren zaindutako tokiren batean kokatzea).

Euskarri mota: gomendagarria da uztai formako euskarria (alderantzizko U edo Unibertsala), honek koadroa eta bi bizikleten gurpilak lotzea ahalbidetzen du.

Deskribapena

Bizikletentzako aparkaleku babestuak instalatu, lanera bizikletaz joateko eskaera kontrastatua duten enpresetan.

Aldizkakotasuna: puntuala

Kostu zenbatetsia: 1.400 € / 5 uztai "U" babeserako egituraren instalazioa barne

Inplikaturako eragileak

Enpresak, EVEk (Energiaren Euskal Erakundea) bizikleten aparkalekuak erosteko diru-laguntza espezifiko bat ateratzen du urtero.

Espero diren onurak

Autoaren erabilera indibidualetik mugikortasun ez motorizatu eta aktiborako aldaketa modala

Emaitzen adierazleak

Bizikletaz mugitzen diren pertsonen portzentajea.

Adibideak

Gipuzkoan enpresa asko daude langileen bizikletentzako aparkaleku babestuak eskaintzen dituztenak. Adibiderik gertukoena Zumaiako GKN Driveline enpresarena da (ikus argazkia).



Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 14

Jarduera lerroa L4

Nomenklatura 4.5.

Mugikortasun aktiboa sustatu

Ekintzaren izenburua

BIZIKLETA ELEKTRIKOAREN ERABILERAREN SUSTAPEN KANPAINA

Helburuak:

Autoaren erabilera indibidualetik mugikortasun ez motorizatu eta aktibora aldatzea modala sustatzea.

Pertsonen lanerako garraioaren kostu ekonomikoak murriztea.

Gaur egungo mugikortasun eredutik eratorritako ingurumen eragin eta emisio kutsakorrek murriztea.

Irizpide, aukera eta oztupoak

Bizikletaz egiten dira, inkestatutako pertsonen artean, lanerako bidaia guztien %0,4 baino gutxiago. Gainera, erabilera hori udaberrri eta udako hilabeteetan kontzentratzen da. Bizikleta ez da garraio modu segurutzat hartzen, poligono horietara iristeko errepideen egoera dela eta.

Ibilbidea ez da segurutzat jotzen, poligonoen inguruko errepideetako tarte batzuetan malda garrantzitsuak daude eta autoen gehiegizko abiadurak arrisku faktore da.

Testuinguru honetan beharrezkoa da bizikleta garraibide gisa sustatzea eta, kasu honetan, bizikleta elektrikoaren erabilera bultzatzea.

Deskribapena

Bizikleta garraibide gisa erabiltzeko ikastaroak (bereziki bizikleta elektrikoak).

Ikastaroak sustatzeko komunikazio kanpaina bat egin udal eta eskualde mailako komunikabideetan.

Aldizkakotasuna: urtean behin

Kostu zenbatetsia. 300 €/ikastaroa

Eragile arduradunak de la Urola Kostako Udal Elkartea, EVE (*Energiaren Euskal Erakundea*)

Espero diren onurak

Bizikleta elektrikoak erabiltzeko gai diren pertsona kopurua handitzea.

Emaitzen adierazleak

Urtean egindako ikastaroen kopurua
Parte hartzaileen kopurua
Bizikletaren pisua azterketa eremuko banaketa modalean

Adibideak

Ikasbizi. Garraio alternatiboaren sustapenerako proiektua
EVEk. (*Energiaren Euskal Erakundea*) interesa duten udal eta erakundeei laguntza eskaintzen die
bizikleta garraio modu gisa garatu ahal izateko.

<http://www.eve.eus/Proyectos-energeticos/Proyectos/Transporte-alternativo/Ikasbizi.aspx>



Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 15 | Jarduera lerroa L5 | Nomenklatura 5.1.

Laneko trafiko istripuekin lotutako arriskuen prebentzioa

Ekintzaren izenburua

LANEKO TRAFIKO ISTRIPUEN PREBENTZIOA

Helburuak

Lan mugikortasunarekin lotutako trafikoko istripu-arriskuak murriztea

Irizpide, aukera eta oztupoak

Trafikoarekin lotutako lan istripuen prebentzioa txertatzea laneko arriskuen prebentzioaren kulturaren barnean.

Horren barnean sartuko litzateke ibilgailuen gidatzearekin lotutako *in itinere* eta *in mision* laneko arriskuen prebentzioa.

Aukera dago lankidetzeta-hitzarmenak egiteko hainbat erakunderekin (Osalan, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza, RACVN, FESVIAL)

Deskribapena

Laneko arriskuen ikastaro bat burutu, ibilgailu motordunen gidatze seguruari buruzkoa. Ikastaroa iraupen luzeagokoa izan daitekeen arren, egun bakar batean egin daiteke. Soilik izaera praktikoa izan dezake, baina metodologia teoriko/praktikoa izatea gomendatzen da (*on line* klaseak eta saio praktikoa).

Ikastaroak sustatzeko komunikazio kanpaina bat egin udal eta eskualde mailako komunikabideetan.

Aldizkakotasuna: urtean behin

Kostu zenbatetsia 500€ / ikastaroa

Eragile arduradunak

Enpresak, Osalan, Urola Kostako Udal Elkarteak, Eusko Jaurlaritza, mutualitateak.

Espero diren onurak:

Lanerako eta laneko mugikortasunetik eratorritako bide istripuak murriztea.
 Kausa horri lotutako laneko bajak murriztea.

Emaitzen adierazleak

Ikastaroan parte hartutako pertsona kopurua
Laneko trafikoko istripuekin lotutako baja kopurua

Adibideak

Gidatze segururako ikastaroa Isolux Cordam-en.

Helburuak: “Gure langileen joan-etorrietan haien gidatze ez seguruan sorrera duten istripu, baja eta bizkarreko lesioak ekidin. Langileen gidatzeko trebetasuna areagotu eta bide segurtasunarekiko sentsibilizazioa”.

Edukiak:

- 1) Nola saihestu gidatzen dugun bitartean sakeleko telefonoaren erabilerarengatik izaten diren distrazioak eta ustekabekoen aurreko erreakzio berantiarra.
- 2) Ergonomia. Bolantearen aurreko kokapena, uhalarena, etab.
- 3) Frenada abiadura eta zoladura desberdinetan. Pneumatikoen zainketa eta azterketa.

Hartzaileak: prebentzio saila, Giza Baliabideak

Iraupena: egun bat. RACC-ek emana

Lotura:

<http://www.seguridadviallaboral.es/index.php/formacion2/item/curso-de-conduccion-segura>

Fesvial.Fundazioa <http://www.fesvial.es/seguridad-vial-laboral>

Premap. <http://www.prevencionfremap.es/>

PESI. <http://www.pesi-seguridadindustrial.org/>

Jardunaldia “La seguridad vial en el ámbito empresarial” . Donostia 2017.
<http://www.fesvial.es/noticias/49-el-20-de-los-siniestros-laborales-mortales-registrados-en-2016-en-euskadi-fueron-accidentes-de-traffic>

Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 16

Jarduera lerroa L6

Nomenklatura 6.1.

Langileen joan-etorriak gutxitzea

Ekintzaren izenburua:

ONLINE LANAREN SUSTAPENA

Helburuak

Pertsonen lanerako garraioaren kostu ekonomikoak murriztea.

Gaur egungo mugikortasun eredutik eratorritako ingurumen eragin eta emisio kutsakorrak murriztea.

Poligonoak eta enpresak eraginkortasunean, aurrezte energetikoan, bide segurtasunean, osasunean eta sustengarritasunean oinarritutako mugikortasunaren kudeaketa eredugarrian kokatzea, aldi berean, kudeaketa eredu hau berrikuntzarako eta enplegu sorrerarako motor gisa erabiliz.

Irizpide, aukera eta oztopoak

Mugikortasuna sustengarriagoa egiteko politika eraginkorrenetan funtsezkoa izaten da bidaiatzeko premia eta egindako distantzietan eragitea. Telelanak aipatutako elementuetan positiboki eragiten du.

Telelanak ahalbidetzen du bulegotik kanpora lan egin ahal izatea, hau da, lana ekoizpen instalazioetatik urrun dagoen tokian egin ahal izatea, informazio eta komunikazio teknologia berriak erabiliz.

Mugikortasunean izan ditzakeen eragin positiboez haratago, telelanak enpresentzat eta langileentzat esperimentatu beharreko hainbat abantaila eta desabantaila izan ditzake (desabantailatiko bat tokian bertan taldean lan egiteko aukera eza da).

Telelanaren formulak arrakasta duenean, enpresak langileari lan mota bakoitza non egingo duen erabakitzen uzten dio, langileari behar adina heldutasun profesionala aitortuz. Adibidez, langileak baloratzen du zein bilerak izan behar duen presentziala eta zeinetan egon daitekeen modu birtualean.

Deskribapena

Interesatutako enpresetan telelana ezartzeko bideragarritasunaren azterketa bat egin. Horrek eskatzen du enpresaren mugikortasuna eta lan egitura sakon aztertzea, langileekin ados jartzea eta abantailak eta desabantailak baloratzea. Horrekin batera, emaitzen ebaluazio jarraitua egin behar da, telelanak mugikortasunean duen eraginaz haratago joan behar duena.

Aldizkakotasuna: iraunkorra

Kostu zenbatetsia: zehazteke

Eragile inplikatuak: Enpresa; Urola Kostako Udal Elkarte

Espero diren onurak

- Bidaia kopuruaren murrizketa esanguratsua, baita emisio kutsakorren eta langileentzako garraio kostuen murrizketa ere.

Emaitzen adierazleak

Telelaneko programa hasi duten enpresa eta langileen kopuruak

Lanera joateko egindako kilometroen murrizketa

Adibideak

Urola Kostako Udal Elkarreak proiektu pilotu bat jarri zuen martxan “On line lana, lan merkatuan sartzeko beste modu bat”, lan mota honen potentzialitate eta bideragarritasuna aztertzeko.



Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak
Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak

Ekintza zk. 17

Jarduera Ierroa L6

Nomenklatura 6.2.

Langileen joan-etorriak gutxitzea

Ekintzaren izenburua

LANALDI ETENETIK LANALDI JARRAITURAKO ALDAKETA ERRAZTU

Helburuak

Pertsonen lanerako garraioaren kostu ekonomikoak murriztea.

Gaur egungo mugikortasun eredutik eratorritako ingurumen eragin eta emisio kutsakorrak murriztea.

Poligonoak eta enpresak eraginkortasunean, aurrezte energetikoan, bide segurtasunean, osasunean eta sustengarritasunean oinarritutako mugikortasunaren kudeaketa eredugarrian kokatzea, aldi berean, kudeaketa eredu hau berrikuntzarako eta enplegu sorrerarako motor gisa erabiliz.

Irizpide, aukerak eta oztopoak

Egon liteke langile multzo bat lanaldi etena duena, baina egoki aztertuz gero, bere lan eginkizunak arratsaldean (eguerdiko etenaren ondoren) zertan egin ez dituen. Litekeena da pertsona horiek beren lanaldia etenik gabe egitea nahiago izatea, kasu askotan eguerdiko etena luzeegia izaten delako. Gainera, etenaldi horrek berreskuratzea kostatzen den lan erritmoa geldiarazten du askotan.

Aurreko ekintza bezala, hau ere lan adimentsuarekin (*smartworking*) lotuta dago, hau da, enpresak, langileari uzten dio baloratzen (eta ondoren enpresarekin adosten du) lanaldi jarraituan lan egin ala ez, modu iraunkorrean edo ez iraunkorrean.

Deskribapena

Lanaldi etenetik lanaldi jarraitura igarotzeko programa baten bideragarritasunaren azterketa egin.

Aukera gutxiago ikusten badizkiogu ere, beste aukera bat da konprimatutako astea ezartzea. Eredu horrek asteko lan orduen banaketa malgua ahalbidetzen du. Pertsonak ordu gehiagoz egiten du lan asteko egun batzuetan eta horren truke egun libre bat lortzen du.

Aldizkakotasuna: behin egin beharrekoa

Kostu zenbatetsia: zehazteke

Eragile arduradunak: Enpresak

Espero diren onurak


- Bidaia kopuruaren murrizketa esanguratsua, baita emisio eta langileen garraio kostuena ere.

Emaitzen adierazleak

Programan parte hartutako enpresa eta langile kopurua.

Lanera joateko egindako kilometroen murrizketa.

Mugikortasun Plana: Ekintzen Fitxak Joxe Mari Korta, Guascor eta Xey poligonoak		
Ekintza zk. 18	Jarduera lerroa L7	Nomenklatura 7.1.
Langileen ordutegien kontzentrazioa		

<p>Ekintzaren izenburua</p> <p>LANGILEEN ORDUTEGIEN KONTZENTRAZIOAREN AZTERKETA</p>
<p>Helburua</p> <p>Autoaren erabilera indibidualetik garraio kolektibora eta autoaren erabilera partekatura aldaketa modala sustatzea.</p>
<p>Irizpide, aukerak eta oztupoak</p> <p>Enpresen ordutegien egokitzapen edota homogeneizazioa ezinbesteko neurria da garraio publikoaren sustapenarekin erlazionatutako ekintzak (2.1, 2.2. eta 2.4. ekintzak) eta, neurri txikiagoan bada ere, auto partekatuarekin erlazionatutako ekintzak garatzeko (neurri horiek enpresa desberdinetako langileen artean sustatu nahi badira). Garraio publikoa sustatu nahi duten enpresek, beste enprekin partekatua den zerbitzua izan ala ez, beren ordutegia moldatu dezakete aldaketa txikiak egin eta besteen ordutegiak bat etortzeko (kasu askotan ordu erdiko doitze batekin nahikoa izan liteke).</p>
<p>Deskribapena</p> <p>Enpresen ordutegien egokitzapena autobus eta trenen ordutegien arabera (2.1. eta 2.2. ekintzak garatu behar badira)</p> <p>Kontzentrazio/homogeneizazio azterketa 2.4. ekintzaren garapenerako. Aldizkakotasuna: behin egin beharreko Kostu zenbatetsia: zehazteke</p>
<p>Eragile arduradunak: Enpresak</p>
<p>Espero diren onurak</p> <p>Autoaren erabilera indibidualetik garraio kolektibora edo auto partekatura aldaketa modala</p>
<p>Emaitzen adierazleak</p> <p>Autoaren erabilera indibidualetik garraio kolektibora edo auto partekatura aldatu diren langile kopurua</p> <div style="text-align: center;">  </div>